

HURBILDU BAKERA

ACERQUEMONOS A LA PAZ

**EUSKAL PILOTA
LA PELOTA VASCA**
Preso eta iheslariak herrira

Inoiz ezagutu gabeko aukerak ekarri ditu egoera berriak gurera. Eskubide galerak, askoren sufrimendua eta bazterkeriak atzean utzi, eta irtenbide justu eta egokiak eraikitzeko parada itzela dugu denok.

Bakea eta soluzioak eraikitzen lagunduko duen egoera berria behar dugu: pertsona guztien giza eskubideak errespetatzea, eta eskusio oro desagertzea. Beharizan honen trarbarik handiena kartzela politika da gaur egun, ehunaka pertsonen giza eskubideak baztertzen dituelako, eskusioa eta mendekua bilatzen duelako eta sufrimenduaren soka luzatzen ari delako.

Gobernuek beren eskuetan dute kartzela politikaren giltza. Pilota beren teiltuan dago. Baina euskal gizartean dugu gobernuak pausuak ematera mugitzeko giltza. Horixe da euskal pilota: bakea eta konponbidea eraikitzeko, preso eta iheslarien egoerari irtenbidea emateko erronka historikoa.

Euskal pilotak lehen botean kartzela politika aldatu eta presoek giza eskubideen errespetua bilatzen du: denak Euskal Herrira ekartzea, eta gaixotasun larriekin, zigor osoa eta $\frac{3}{4}$ beterik direnak askatzea. Konponbidean presoek inplikazioa posible egiten duten egoerak sortuz horrela, gatazkaren parte den oro soluzioaren parte izan dadin, inor baztertu edo menperatzeko asmorik gabe. Garrantzitsua deritzogu halaber, iheslarien aurkako errepresaliak desagertzeari, haien herriratzeari aukerak irekiz.

Bigarren botean bake egoera sortu eta egonkortzeko urratsa eman nahi du euskal pilotak. Hau da, gatazkak sorturiko ondorio eta egoera guztiak konpontzea, tartean preso eta iheslari guztiak herriratzea. 600 preso eta ehunaka iheslari izanik ezinezkoa delako tatzuzko bake egoerarik eratzea.

Herrira